

Are saminagoa da oraindik holako egoera batetan bizirik kanpoko inork ez jakitea eta ez jakin ahal izatea. Holako zenbait diktaduraren pean daudenek nolabait salatu nahi dute publikoki beren bizi ezina. Sarritan publiko honen jakiteko mediorik ezaren eta beste batzuen ixiltzeko interesen biktima izaten jarraitzera kondenatuak egoteak min handiagoa damaie. Eta honela odolpotzu asko ezkutuan geratu da. Batzuk tiroak harmaz botatzen dituzte. Beharbada disimulorik gabe eta odola azkar ateratzeko moduan. Baina sarritan hau dena eragina da. Tiro hauen atzetik ba daude beste batzuk askoz ere intelijente eta dotoreagoak; hitz eder eta nahastuen artean herriari zurikeria eta zupaketa ederra egiten dihardutenak. Edo, harmaz bakarrik hil ote daiteke gero herri bat?

Ba dakigu parlamentuan ez dela inor hilko tiroka, baina han egingo dituzte herrialde batzuk deusezteko edo txikitzeko legeak. Han ere haundiek indarra dute eta errespetoa bestek ikasteko utzi. Handik zuzendutako eztenkadak berehala datoz herriaren sentimena ukitzera. ■ *Antonio Iraola.*

«Famak kurritu zuen...»

Behin eta berriz, han eta hemen, Bergarako Bilkuran eta egunkarrietan, entzuna genuen: Euskaltzaindiak amore ematen ez bazuen, euskal Akademia bat sortuko zutela beraiek. «Beraiek» Kardaberaztarrak dira; eta Euskaltzaindiaren ordez sortu nahi zutena, Estanislao Urruzolaren hitzetan, «Euskal Erriaren Zaindia (edo Izkuntzaindia)» (sic).

Ba, ez. Urriaren 19ko HERRIA ipar aldizkarian irakurri dugunez, holako Akademiarik ez sortzea erabaki da. Hona albistea:

«Famak kurritu zuen zenbait hego-euskaltzalek nahi zutela muntatu akademia berri bat euskaltzaindiaren kontrako.

Xede horri buruz, erran daukutenetz, egin da Tolosan bilkura bat eta bozak eman dituzte ea komeni zen bigarren Akademia horren muntatzea. 27-k baietz ihardetsi dute; 7-k ezetz. Hain xuxen, zazpi horietan Manuel de Lecuona eta Berrondo jauna izanki, don Manuel nahiko zuten 27-ek buruzagi, eta don Pedro idazkari. Ikusiz hauiek ez zutela saltzarik nahi, denek uko egin diote bigarren Akademiari».

Baina hau idatzita gero, beste fama batek kurritu du. Baietz, Euskeraren Akamedia sortzea erabaki dela jakin dugu berrikitan. Akademia? Antieuskaltzaindia da hau, eta ez besterik. Da, edo izan nahi luke. Ikusteko bait dago honen etorkizuna, lehen ere bazuten eta «Idazleen Eskola (?)». Gauza batek ez du zalantzarik: nahasbide izango da. Guztion zoritxarrerako, gure ustetan. ■ *Joan Larrinaga.*